



4.
LITERATUR
LEHIAKETA
BUZTINTXURI I.P.

2025



BUZTINTXURI I.P.



4.
LITERATUR
LEHIAKETA
BUZTINTXURI i.p.
2025

KAIxO!

Sormena haurtzarotik loratzen den hazia da, eta haur bakoitzean istorio, amets eta bertsoz osatutako mundu bat bizi da, kontatuak izateko zain. Liburu honek Buztintxuri I.P.-n urtero egiten den Literatur Lehiaketako ipuin eta olerki irabazle eta nabarmenak biltzen ditu. Ekitaldi horretan, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleei idazketaren eta poesiaren bidez adieraztera gonbidatzen zaie.

Orrialde bakoitza mugarik gabeko irudimenaren, sentiberatasunaren eta idazle gazteen ahaleginaren testigantza da, hitz erraz baina ahalsuekin hunkitzea, harritzea eta gogoeta eginaraztea lortzen baitute. Bere kontakizun eta poesiek mundu fantastikoe-tara eramaten gaituzte, egunerokotasunari begi berriekin begiratzera gonbidatzen gaituzte eta literaturak adinik ez duela erakusten digute, bizitzeko eta partekatzeko gogoia besterik ez.

Parte-hartzaile guztiak zoriontzen ditugu idaztean erakutsitako ausardiagatik eta ozen amets egitera ausartzeagatik ere. Liburu hau irakurtzeko inspirazioa izan dadila eta idazteko maitasuna lantzen jarraitzeko, eta hitzen botere eraldatzailean sinesten jarraitzeko.



LENA DOMÍNGUEZ
(LH3)

MUNDU MAGIKOA

Uda zen. Lena, Irlandan zegoen oporrak zirelako. Ohetik altxatu zen, gosaldu zuen, hortzak garbitu zituen eta beti bezala paseatzera joan zen. Parkera iritsi zen eta txirristatik bota behar zenean zuhaitz batek disdira egiten zuela ohartu zen. Zer zen begiratzera joan zen eta zuhaitzak ate bat zuela ikusi zuen.

Lena atean sartu zen eta bapatean beste mundu batean zegoen. Bapatean norbaitek hitz egin zuen. Lenak aldeetara begiratu zuen baina ez zuen inor ikusten. Berriro norbaitek hitz egin zuen eta esan zuen:

— Hemen goian!

Lenak gora begiratu zuen eta gnomo batzuk atera ziren. Lenak ez zuen ezer ulertzen. Ez zekien gnomoak existitzen zirenik.

Gnomoek esan zuten: Zuhaitzeko atea ireki dugu, laguntza behar dugulako. Dragoi batek jan nahi gaitu eta pentsatu dugu zuk lagundu ahal gaituzula. Orduan dragoia etorri zen eta Gnomoak ezkutatu ziren, baina Lena ez zen beldur. Dragoia belarraren gainean eseri zen eta Lena harrapatzen saiatu zen, baina honek geldiarazi zion eta dragoiak esan zuen:

— Zer nahi duzu?

— Nahi dudana da zuk gnomoak bakean uztea.

— Baina nik bakarrik Gnomoak jaten ditut.

Lenari pixka bat pena eman zion Dragoia eta ideia bat izan zuen eta Dragoiari esan zion:

— Nik etxe bat janariarekin, janaria egiten badizut, zuk Gnomoak jateari utziko zenioke?

Dragoiak baietz esan zion. Lenak Gnomoei berria esan zien eta Gnomoak ezkutalekutik atera ziren. Etxea egiten bukatu zutenean dragoia barruan sartu zen.

Dragoiak egindakoa eskertzeko, lehenengo gnomoei hegan buelta bat eman zien. Lenak etxean pelikula bat ikustera gonbidatu zuen eta gnomoei ere utzi zien ikusten. Lena,

gnomoak eta drogoia lagun minak egin ziren. Lena bere mundura itzuli behar zuen baina gnomoeak eta dragoiak ez zuten nahi Lena joaterik. Berak esan zien ateraino joaten ahal zirela berarekin. Atera iritsi zirenean, Lenak agurtu zituen eta atetik pasa zen. Triste zegoen baina familia ikus-teko gogoia zuen. Etxera itzuli zenean besarkada handi bat eman zien gurasoei. Hain nekatuta zegoen pijama jarri, ohera joan eta lo geratu zela.



EKAITZ CÍA
(LH3)

TXANTREA HOBERENA

Behin batean Euskal Herrian, goizean goiz, Ekaitz oso pozik esnatu zen entrenamendura joateko. Lehenik eta behin motxila egin behar zuen. Galtzerdiak, kamiseta, prakak, galtzontziloak, teknika atezain eskularruak, txanpua, esku oihala, txankletak eta jertsea prestatu zituen entrenamendura joateko.

Entrenamenduak egin eta gero partido bat jokatu zuten. Partidoa kirolen kontra jokatu behar zuten. Galtzen ari zirenez haserretu ziren. Haserre zeudenez ez zioten elkarri pasatzen. Egoera ikusita entrenatzaileak erlaxatzeko eta baloia pasatzeko eskatu zuen. Ekaitzen taldeak irabazi zuen baina besteek pozik galdu zuten.

Ekaitzek, Unaiek eta Xubanek patata tortila eskatu zuten. Jonek, Anerrek eta Ametzek talo jana eskatu zuten. Inarrek, Yeraik eta Souhaylek bokadilo txistorra eskatu zuten. Azkenik Aiurrek eta Markelek pintxo bat eskatu zuten. Etxera joan ziren.



NOA MERLO
(LH4)

AGUR LAGUN

Zu nire laguna
zinen.

Joan zinenean
negarrez hasi
nintzen.

Orain beste
lagun bat
dut.

Baina zuri gehiago
maite zaitut.

Zu nire bihotzetan
zaude nire
ondoan ez
egon arren.

Agur lagun gogoan
zaitut zu.



OLERKI
FINALISTA

JULEN CASAR
(LH4)

PATATA TORTILA EDO LAGUN ERREALA

Patata tortila nire laguna da?
Gustatzen zait, eta ona dago.

Baina patata tortilarekin
ez dut jolasten,
ez da nire laguna.

Ordenagailua nire laguna da?
Gustatzen zait, eta berarekin
jolasten dut:
Roblix, Minecraft eta abar.
Baina ez da nire laguna:
Ezin da mugitu!

Robot Hipermax nire laguna da?
Gustatzen zait eta ordenagailu bat dauka.

Mugitu ahal da!
eta jolastu ahal dut!
Baina ez da
nire laguna: Ez dago maitasuna!

Lagun erreal batekin jolasten dugu,
beste lagunen artean.
Beste batzuetan pozik, beste batzuetan
haserre.

Lagunak izango gara beti,
kalean eta etxean,
toki denetan.

Beti lagunak, beti maitasuna.
Nik uste dut hobeto laguna eta ez
tortila patata



ADI PENA
(LH5)

BETIKO LAGUNAK

Nafarroako herri txiki batean futboleko talde bat zegoen eta bere izena Euskaldunak F.T. zen. Ni hor jokatzeko nuen eta ekipoko lagunak hoberenak Eneko, Oihan, Aitor eta ni Pepe ginen. Eneko ekipoko zentrala zen, oso altua eta pixka bat handia zen. Oihan ekipoko atezaina zen, altua eta argala zen. Aitor ekipoko hegala ezkerria zen, argala eta ez oso altua zen. Azkenik ni, Pepe, ekipoko erdilaria nintzen, oso altua eta argala nintzen.

Duela aste bat Cambrilen zegoen torneo batera deitu gintuzten logikoki, baietz esan genuen. Orduan hurrengo egunean joan behar ginenez motxila eta guzti prestatu behar genuen. Prestatzen bukatu nuenean lotara joan nintzen.

Hurrengo egunean, goizean, Cambrilera joan ginen. Ailegatu ginenean 2 ordu genituen lehenengo partidarako eta

oraindik prestatu behar ginen eta gauzak utzi genituen. Nire logelan aitor Oihan eneko eta ni geunden. Oso pozik nengoen nire lagunik honenarekin nengoelako.

Motxila hartu genuen eta aldageletara joan ginen. Aldatzen hasi ginen eta zelaira atera ginen. Zelaia oso ongi zegoen eta berotzen hasi ginen.

Partidoa hasteko zegoen eta beraiek ateratzen zuten partidoaren sarea. Oso ondo mugitzen zuten pelota baita guk ere. Erdilaria asko erabiltzen zuten paretak egiteko. Bi ekipoez gola sartzeko aukerak izan zituzten baina ez zuen inork sartu.

Atsedenaldira joan ginen eta ez zutela talde bat bezala jokatzeko konturatu ginen. Beraiek bakoitza bere baitan honenak zirela uste zuten. Adiz gu talde bezala honenak girela uste genuen. Bigarren aldian oso ondo atera ginen eta aukerak izan genituen baina oraindik ez genuen gola sartu. Hurrengo jokaldian, bandatik jokaldi bat egin genuen. Aitorrek zentro bat egin zuen, nik errematatu nuen eta gola sartu nuen.

Denbora pasa zen gola sartu nuenetik eta erlaxatu ginen. Orduan prestatuturiko jokaldi bat egin ziguten eta oso jaurti-

keta zail bat egin zuten, txilena bat egin zuten, baina oiha-
nek berriz gelditu zuen. Beste ekipoko batek pilota hartu
zuen, jaurtiketa eder bat egin zigun eta gola sartu ziguten
azkenean.

Bost minutu geratzen ziren. Jokaldi oso polit bat egin ge-
nuen, Enekok pasa egin zidan eta ni bi tokeekin Aitorri
pasa nion. Bera defentsa baten kontra zegoen, defentsatik
joan zen jaurtiketa bat egin zuen eta gola sartu zuen. Erditik
atera zutenean partidoa bukatu zen.

Aldageletan asko ospatu genuen, izan ere, finalean geun-
den! Oso ondo jokatu genuen. Hurrengo egunean finala
geneukan baina afaltzera joan behar ginen.

Enekok Oihani txantxa bat egin zion baina Oihanek ez
zuen ulertu eta asko haserretu ziren. Gero lotara joan gi-
nen. Hurrengo egunean, esnatu ginenean, gosaltzera joan
ginen eta Enekok eta Oihanek haserre jarraitzen zuten. Bu-
katu genuenean logeletara joan ginen eta partidoetarako
motxila prestatu behar genuen. Bukatu genuenean zelai-
ra joan ginen. Partida hasi zenean, oso gaizki jokatzen ari
ginen. Beraiek haserre zeudenez ez zegoen beraien arteko
konexiorik.

Haiek oso ondo jokatzen ari ziren eta gola sartzeko aukera asko izan zituzten. Horietarako hirutan gola sartu ziguten. Gu ere gola sartzeko aukeraren bat izan genuen baina ez genuen gola sartu.

Atsedenaldira Aitor eta biok Oihan eta Enekorengana gerturatu ginen eta beraien artean hitz egiteko esan genien. Oihan konturatu zen bakarrik txantxa bat zela eta ez zuela ezertarako balio horregatik talka egitea. Orduan bigarren aldira askoz hobeto atera ginen. Berriz ere talde bat bezala jokatzen hasi ginen eta gola sartzeko aukera asko izan genituen.

Horietako batean nik baloia lapurtu nuen, bi pertsonetaz joan nintzen eta beste ekipoko batek segada bat egin zidan area barruan. Penaltia zela esan zuen arbitroak. Aitorrek botako zuen. Penaltia bota zuenean kanpora joango zela zirudien baina gola izan zen.

3-1 galtzen gindoazen. Haien eraso batean Enekok baloia lapurtu zuen eta niri pasa zidan, nik Aitorri pasa nion, berak niri pasa zidan berriz ere. Nik jaurtiketa bat egin nuen eta gola sartu nuen. Hori 3-2a izan zen. Oso pozik jarri ginen. Talde bezala oso ondo jokatzen ari ginen.

Oraindik beste gol bat sartzeko denbora geratzen zen. Mozeean ateratzen saiatu ziren baina Aitorrek baloia lapurtu zuen eta gola sartu zuen. 3-3 gindoazen. Gola sartu genuenetik denbora pasa zen baina inork ez zuen sartu eta penaltietara joan ginen.

Nik lehenengo penaltia botatzen nuen eta gola sartu nuen. Haien aurrelariak penaltia sartu zuen baina Oihanek gelditu zuen. Enekok gure bigarren penaltia bota zuen eta gola sartu zuen. Haien erdilariak beste penalti bat bota zuen eta kanpora bota zuen. Aitorrek gure azkenengo penaltia bota zuen eta gola sartu zuen. Haien defentsak penaltia bota zuen eta Oihanek gola gelditu zen! Penaltietan irabazi genuen!

Kopa eman ziguten, eta ospatzen ari ginela, bapatean nire etxeko ohean nengoela konturatu nintzen. Sukaldera gosaltzera jaitsi nintzen eta sukaldean nengoela nire amak hurrengo esan zidan:

— Txapeldun!! Zer moduz? Zorionak koparengatik!!!

Eta nik pentsatu nuen: “Benetan pasa da edo dena amets bat izan da?”



CHLOE RUIZ
(LH5)

LAGUNEN ARTEKO LEHIAKETA

Bazen behin Leire izeneko neska bat. Leire alaia, dibertigarria eta lagun ona zen. Parisen bizi zen.

— Kaixo aita eta ama, egun on — Leirek agurtu zuen.

— Egun on maiti — erantzun zuen amak.

— Leire, gauza bat kontatu nahi dizut — aitak esan zuen.

— Leire etxetz aldatuko gara eta Espainiara joango gara.

Leire beste logelara negarrez joan zen hau pentsatzen: "Lagunak hemen dauzkat, eskola berria..."

— Agian ez da momentu hoberena, oso haserre geldituko da gurekin.

Lau egun geroago hegazkinez bidaiatzen ari zirela...

— Leire pasada bat da eta bista ikaragarriak ditu — amak esan zuen.

Leire oso haserre zegoen, oso triste eta ez zuen hitz egiteko asmorik.

— Begira Leire etxe berria — aitak komentatu zuen.

— Hara! Zeinen etxe modernoa! 3 edo 2 solairukoa izan behar da — Leirek pozik esan zuen.

Hurrengo egunean eskolan...

— Kaixo, egun on denoi, gaur ikasle berri bat etorriko da

— Irene irakasleak esan zuen. Altua, jatorra, ez oso alaia eta dibertigarria zen.

— Kaixo, egun on denoi, Leire dut izena.

— Nondik zatoz? — irakasleak galdetu zuen.

— Ni Parisetik nator — Leirek erantzun zuen.

— Orain Leireri galderak egin ahal dizkiozue.

— Frantsesez hitz egiten badakizu? — Alaiak galdetu zuen.

— Ba bai — Leirek erantzun zuen.

— Patio ordua da, denak patiora — irakasleak abisatu zien.

Patioan Leire banku batean eserita zegoen eta Alaiak hurbil-
du zitzaion.

— Kaixo, Alaia naiz eta asko hitz egiten dut. Oso jatorra naiz, alaia eta dibertigarria baina hori aita eta amak baka-
rrik esaten didate — Alaia aurkeztu zen.

— Eta hori, zergatik? — Leirek galdetu zuen.

— Ba, egia esan ez dakit oso ongi, asko hitz egiten dudala
uste duzu?

— Ni laguna izan nahi? — Leirek galdetu zuen.

— Bai, noski, bakarrik zuk esan didazu — Alaiak erantzun
zion

— Gelara, gelara, gelara — irakasleak deitu zituen

— Orain giza gorputza emango dugu.

— Pss, pss...Leire! Leire! — Alaiak deitu zuen.

— Zer nahi duzu? Arreta jartzen ari naiz.

— Gaur nire etxean 4:30tan, bai? — Alaiak proposatu zuen.

— Bale han egongo naiz — Leirek erantzun zuen.

Tring, tring, tring!

— Denak etxera! — Irenek esan zuen.

— Kaixo ama eta aita — Leire etxera ailegatzean.

— Zer moduz joan da lehenengo eguna? — Amak galdetu
zuen.

- Ba, oso ongi eta Alaia ezagutu dut.
- Nor da Alaia? — galdetu zuten.
- Nire lagunik hoberena da.
- Ou, ou, itxaron, ezin zara gaur arratsaldean joan Aitorren partidoa dugu eta — amak esan zuen.
- Baina ni geratua nengoen eta, eta...
- Bueno, joan zaitezke — Amak baimena eman zion.
- Eskerrik asko ama, maite zaitut.
- Tring! Tring! Leirek Alaiaren etxean atea jo zuen.
- Kaixo Leire — Alaiak agurtu zuen.
- Kaixo Alaia — Leirek agurtu zuen.
- Goazen nire logelara — Alaiak proposatu zuen.
- Ala, zure logela pasada bat da.
- Bueno, benga, etxeko lanak egin behar ditugu.
- Hurrengo egunean eskolan:
- Egun on guztioi, badakizue urtero ipuin lehiaketa dagoela eta aurtengo gaia Pinotxo da eta orain denak asmatuko duzue — Irene irakasleak abisatu zuen.

— Ea Leire lagunduko zaitut berria zarelako — Irenek esan zion

— Bale, ideia bat daukat — Leirek esan zuen.

— Lehenengo Pinotxoren ezaugarriak jakin behar ditugu.

— Chromebook bat hartu dezaket? — Leirek galdetu zuen.

— Baina historiaa zuk asmatu dezakezu eta istorioa ezin duzu interneten bilatu — Irene irakasleak esan zion.

— Kaixo aita eta ama, irakasleak ipuin lehiaketa izango dugula esan digu.

— Eta hori zertaz doa? — Amak galdetu zuen.

— Orain kontatuko dizuet. Zuk ipuin bat idazten duzu eta epaile batek erabakitzen du nor den irabazlea. Aurtengo gaia Pinotxo da.

— Leire, lasai irabaziko duzu eta — aitak animatu zuen.

— Bueno ez dakit, igual beste norbaitek irabazten du.

Bi aste geroago...

— Egun on guztioi aurtengo lehiaketaren irabazlea Leire Otzandategi da.

— Zer ipuin lehiaketa? — Amak galdetu zuen

— Ba aurtengo irabazlea ni neu naiz ama, irabazi dut!!!

Tring, tring...

— Kaixo alaia, zer? Geratuko gara?

— Zuk uste duzu nik gogoak ditudala zurekin geratzeko?
Bolada kendu didazu!

— Ai neska! Urte bat bakarrik da eta hurrengoan zuk irabaziko duzu!

— Aurten gure azkenengo urtea da eta ni oso haserre nago zurekin.

— Gaur binaka lan egingo dugu. Bikoteak nik egingo ditut.
Alaia Leirerekin...

— Bueno, elkarrekin tokatu zaigunez, konpondu behar gara.

— Barkatu irabazi nahi nuen nire lehenengo urtea zelako,
baina ez nuen zure bolada apurtu nahi.

— Lasai, nahi gabe izan da, barkatu.

Konpondu zirenetik oso ondo joan ziren eta klaseko hoberenak bihurtu ziren.



EGOITZ APEZTEGIA (LH6)

LAGUNTASUNA

Lagun asko egiteko
daukagu mundua,
haiekin jolasteko
daukagu abuztua.
Denok gustoko dugu
egotea plazan,
musika jartzean bai
denok gaude dantzan.

Oso jatorrak dira
bai nire lagunak,
txismeez hitz egiten
pasatzen egunak.

Asteburutan denak
nahi gara elkartu,
bost euro poltxikotan
ta txutxeak hartu.

Korrika gaudenean
gureak kaleak,
eztabaidak konpontzen
badira trebeak.
Triste baldin badaude
nire lagun onak,
haiek pozteko beti
egingo ditut bromak.

Lagunok maite dugu
gure Buztintxuri,
kaleetan jolasten
gara oso bihurri.
Ordua ematen du
ta goaz etxera,
hurrengo egunetan
elkartuko gera.



NOA LABIANO
LARA SARASIBAR
(LH6)

LAGUNTASUNA

Ongi etorri lagunak
gaur gure bertsora.
Zer moduz zaudete ba
nator galdetzera.
Has gaitezen abesten.
Zetoz jolastera.
Goazen denak plazara
ondo pasatzera.

Oso jatorrak dira
bai nire lagunak
atsaldetan eta
goizean egunak.

Beti aspertzen gara
bai egiten lanak.
Eskola bukatuta
bai egiten planak.

Zure lagunak dira
familia bezala,
zaindu behar dituzu
hori bai brutala.

Beti egongo dira
laguntza ematen,
gaizki baldin bazaude
beraiekin joaten.

Lagunekin egiten
ditugu bai bromak,
beste batzuk dakite
bai garela onak.
toka tinbreak egin
gu bai bihurriak,
beste batzuk egiten
dituzte irriak.

Beti etortzen dira
lagunak etxera,
pijamada egiten
guztiok batera.
Parkean egotean
gustora jolasten,
musikarekin egon
bai Zetak abesten.

Musikala egiten
dugu guk parkean,
baloiekin jolasten
poz-pozik kalean.

Lagun guztiak dira
oso oso onak,
toka timbres egiten
zer nolako bromak.

Lagun guztiakin gu
gaude hemen plazan,
hip hop musikarekin
egoteko dantzan.

Lagun guztiak doaz
bai nire etxera,
pijamada egiten
dugu guk batera.

Honekin bukatu da
bai gure bartsoa,
estero izatea
zuen gustokoa.

Agur neska mutilak
banoa oporretan,
beste egun bat arte
jarraitu bertsoan.

